

Aisialdi zerbitzu bat ematea erabaki dugu, zerbitzu hau aisialdirako udaleku eta neguleku bat izango litzateke, urte guztia iraungo duen aisialdi taldea da. Zerbitzua, besteak beste, euskal kultura, mitologia eta hizkuntza bultzatzeko eskainiko dugu; euskaldunen artean balio hauek indartzeko eta atzerritarren artean gure kultura, gure istoriak ezagutzeko eta barneratzeko, izan ere, apurka apurka, elementu hauek galtzen ari direla ikusten baitugu.

Honez gain, gure zerbitzua naturara ere bideratuko dugu, izan ere, hirietako biztanleek ez dute harreman gehiegi naturarekin eta elementu hau gure lurraldeko aspektu garrantzitsu bat ere badela uste dugu. Beraz, txango ugari egingo ditugu ingurune naturaletara, ahaztu gabe, txango hauek Euskal Herriko txoko desberdinak ezagutzeko aitzakia ere izan daitezkeela.

Giro euskalduna sortzea garrantzitsua da guretzako. Gu Bilbon kokatuko gara eta badakigu Bilbo bezalako euskal hiri handietan giro hau gero eta gutxiago ikusten dela. Urteotan egin diren ikerketetan ikusi den bezala, euskarak beherakada handia egin du, eta hori Bilbo bezalako hiri batetan asko nabaritzen da. Web-orrialdeetan ikertuz (Bilboko udaletxea...) ikusi dugu Bilbon ez dela euskaraz asko hitz egiten.

Horrez gain Bilbo inguruko beste herriek ere ez dute euskal giro hau hobetzen laguntzen, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Arrigorriaga....

Eustateko taula honetan ikusi dateke euskararen egoera. Nabarmendutako atalean ikus daiteke, Bilbo aldeko euskararen datuak.

## Población de 5 y más años de la C.A. de Euskadi por comarcas según tipología de movilidad lingüística y sexo. 2016

   Departamento de Cultura y Política Lingüística



	Total		Vascófonos		Bilingües de origen		Neo-vascófonos		Neo-vascófonos parciales		Parcialmente castellanizados		Totalmente castellanizados		Castellanófonos	
	Hombres	Mujeres	Hombres	Mujeres	Hombres	Mujeres	Hombres	Mujeres	Hombres	Mujeres	Hombres	Mujeres	Hombres	Mujeres	Hombres	Mujeres
Añana	3.099	2.565	64	45	64	49	423	419	440	364	16	14	28	20	2.064	1.654
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	5.594	5.221	106	134	145	143	856	949	834	718	44	47	43	31	3.566	3.199
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	16.059	16.491	590	591	704	674	3.867	4.276	2.599	2.457	139	164	70	66	8.090	8.263
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	119.027	125.415	3.434	3.997	3.556	3.750	23.375	26.843	18.299	18.040	865	873	674	716	68.824	71.196
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	1.586	1.269	35	39	48	41	270	250	195	165	9	11	8	5	1.021	758
Arratia Nerbici / Arratia-Nervión	11.131	11.145	3.562	3.710	932	931	1.772	1.869	1.367	1.183	195	177	60	80	3.243	3.195
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	35.602	37.351	6.624	7.202	2.360	2.383	6.842	7.195	4.996	4.887	513	542	93	134	14.174	15.008
<b>Bilbo Handia / Gran Bilbao</b>	<b>388.294</b>	<b>428.531</b>	<b>17.718</b>	<b>19.907</b>	<b>14.168</b>	<b>14.056</b>	<b>79.533</b>	<b>89.363</b>	<b>65.942</b>	<b>65.154</b>	<b>3.512</b>	<b>3.887</b>	<b>1.431</b>	<b>1.945</b>	<b>205.990</b>	<b>234.219</b>
Debabarrena / Bajo Deba	25.587	26.543	9.750	10.615	1.875	1.939	3.704	3.906	2.894	2.635	354	380	81	112	6.929	6.956
Debagoiena / Alto Deba	29.420	29.857	13.015	13.363	2.181	2.118	3.995	4.159	2.938	2.704	323	328	90	84	6.878	7.101

Aipatzekoa da herri hauek oso industrializatuta daudela, nahiz eta azken urte hauetan Bilbok izugarritzko aldaketa egin duen. Faktore honek ez du naturarekiko harremanean laguntzen.

Euskal giro hau aurrera ateratzeaz gain, euskal kultura eta mitologia ezagutaraztea ere gure helburuetariko bat da. Euskal mitologia adibidez, galtzen doan zerbait da; gero eta herritar gutxiagok dakite Tartalo, Mielotxin, Ziripot bezalako pertsonaiak nortzuk diren.

Gure ustetan, ezin dezakegu aspektu hau galtzen utzi; honi garrantzia emango diogu eta guzti hau lantzeko oinarria natura erabiliko dugu. Elementu mitologikoak aurkitzen diren leku zehatzetara joanez, pertsonaien irudiak guk eginez, eskulanen bitartez pertsonaien mozorroak eginez ( lamia, basajaunak...).

Bilbo hiri handia denez erdialdean ez dago naturarekin kontaktuan egoteko espaziorik, baina kanpoaldean leku asko bisitatu ditzakegu, hala nola, Europa Parkea, Etxebarria Parkea.... Horiek dira gehien bat Bilboko berdeguneak, nahiz eta belar larreak besterik ez izan. Lehen esan bezala, inguruko herriak oso industrializatuta daude eta beraz urrutira joan behar dira haurrak natura era egokian ikusteko.

Beste enpresak eskaintzen ez dituzten aukerak eskaintzen ditugu eta gure bezeroekin besteek baino hurbiltasun handiagoa mantentzea ahaleginduko gara, familiekin ere harreman estua izanez eta noizean behin batzarrak eginez.